

KORONABIRUSARI BURUZKO GALDERA ETA ERANTZUNAK (COVID-19)

ZER DA KORONABIRUSA?

Birus familia zabala da koronabirusena, eta normalean animaliei eragiten die. Batzuk animalietatik pertsonetara ere pasa daitezke. Koadro klinikoak askotarikoak dira; hotzeria arrunt bat izan daiteke, edo gaixotasun larriagoak.

SARS-CoV-2 koronabirusa berria da, pertsoneri eragin ahal die, eta 2019ko abenduan atzeman zuen lehen aldiz, Txinan, Hubei lurraldeko Wuhan hirian.

ZEINTZUK DIRA COVID-19AREN SINTOMAK?

Sintoma arruntenak sukarra, eztula, eta aire faltaren sentazioa dira. Kasu batzuetan, usaimena eta dastamena galdu edo murriztea, hotzikarak, eztarriko mina, buruko mina, ahultasun orokorra, beherakoa eta gonbitoak.

Kasu gehienak arinak dira. Kasu larriagoetan, infekzioak pneumonia eragin dezake, edo arnasa hartzeko zailtasun handiak, giltzurrunetako arazoak, edota heriotza ere. Kasu larrienak pertsona nagusiengan edo gaixotasun kronikoren bat dutenengan ematen dira, hala nola bihotzeko gaixotasunak, biriketako gaixotasunak edo immunoeskasiak dituztenengan.

NORK DAUKA ARRISKURIK HANDIENA?

Konplikazio arrisku handiena dutenak nagusiak eta gaixotasun kronikoak dituzten pertsonak dira, hala nola gaixotasun kardiobaskularrak, diabetesa, arnas gaixotasunak edo immunoeskasiak dituztenak. Une honetan, gure inguruan, COVID-19rekin kutsatutako pertsonen heriotza-tasa % 4koa da.

NOLA TRANSMITITZEN DA?

Gaixo dagoen pertsona baten ezkul edo doministikuan sortzen diren arnas-tanten kontaktu zuzenaren ondorioz transmititzen da. Arnas-bideetan dagoen birus kopuruaren arabera da kutsatzeko aukera. Tanta horiek beste pertsona bat infektatu dezakete zuzenean sudurraren, begien eta ahoaren bidez. Tanta horiek kutsatutako gainazalak ukitu ostean sudurra, begiak edo ahoa ukitzean ere infektatzeko arriskua dago. 2 metrotik gorako distantziara ez dago aire bidez transmititzeko aukera handirik.

COVID-19a izan duten pertsona gehienek kutsatutako beste pertsona batzuegandik hartu dute. Hala ere, gero eta argiago dago sintomak garatu ez dituzten edo sintoma arinak dituzten pertsonen garrantzia dutela transmisioan.

ZENBAT DENBORAN IRAUTEN DU BIRUSAK GAINAZALETAN?

Ez dakigu ziur zenbat denboran iraun dezakeen COVID-19a eragiten duen birusak gainazal batean, baina ematen du beste koronabirusen moduan jokatzen dutela. Egindako azterketek (COVID-19aren birusaren inguruan eskura dagoen aurretiko informazioa barne) adierazten dute koronabirusek ordu gutxi batzuk zein egunak ere iraun dezaketela gainazal batean. Denbora baldintzen arabera izan daiteke (esaterako, gainazal mota, tenperatura edo giroan dagoen hezetasuna).

Gainazal bat infektatuta egon daitekeela uste baduzu, garbitu desinfektatzaile arruntarekin birusa ezabatzeko, eta zeure burua eta gainerakoak babesteko. Garbitu eskuak urez eta xaboiz, edo alkoholun desinfektatzailearekin. Saiatu begiak, sudurra eta ahoa ez ukitzen.

ZENBAT IRAUTEN DU INKUBAZIO-ALDIAK?

Inkubazio-aldia infekzioaren eta gaixotasunaren sintoma klinikoak agertu arteko denbora-tartea da. Egungo estimazioen arabera, inkubazio-aldia 1 eta 14 egun bitartekoa da, 5-6 eguneko batez bestekoarekin.

BIRUSA BERRIZ ERE HARTU AL DAITEKE, BEHIN PASATUTA?

Txinan, berriz ere infektatu diren pertsonen kasuak egon dira, immunodeprimitutako pertsonen artean. Hala ere, oraindik ez dago informazio orokor nahikorik. Pentsatzen da, beste gaixotasun batzuekin gertatzen den legez, behin infekzioa pasata gorputzak immunitatea lortzen duela, eta, beraz, zaila izango litzatekeela berriz infektatzea.

ZER EGIN DEZAKET NIRE BURUA ETA INGURUKOAK BABESTEKO?

Arnas-gaixotasunetatik babesteko neurri indibidualak honakoak dira:

- Eskuak sarritan garbitzea (urez eta xaboiz edo alkoholun soluzioak erabiliz).
- Eztula edo doministiku egitean, ahoa eta sudurra estaltzea ukondoa tolestuta.
- Erabili eta botatzeko zapiak erabiltzea, ondoren zakarretara bota eta eskuak garbitzea.
- Begiak, sudurra eta ahoa ez ukitzen saiatzea, transmisio-bideak baitira.
- Pertsonen artean 2 metroko segurtasun-tartea mantentzea.
- Gehien ukitzen diren gainazalekin kontuz ibiltzea eta sarritan garbitzea.
- Garraio publikoan eta leku itxietan maskara erabiltzea, baita kalean ere, bi metroko segurtasun-tarta mantendu ezin denean.
- Sintomarik izatekotan, gela batean isolatuta geratu eta Osakidetza-aren gomendioei jarraitu beharko zaie.